

“IkasBideo”

Olatz, Igor, Naiara eta Ione gara, eta IkasBideo proiektua martxan jarri dugu. Eskolan, bai ikasleek eta bai irakasleek erabili dezaketen aplikazio bat da hau. Aplikazio honetan ikasleei zein irakasleei zuzendutako materiala aurki daiteke. Alde batetik, gaiak laburtuta ageri dira bertan, eta bestetik gaiak azaltzen dituzten bideo zein pelikulak ditugu. Hizkuntza aldetik, euskarazko zein gaztelaniazko materiala eskaintzen dugunez, euskaraz ikasten duten horiengana ere iritsi gaitezke.

Ikasteko garaian izaten ditugun arazoetan oinarritu gara proiektu hau sortzeko garaian. Askotan ikasten duguna ez dugu guztiz ulertzen edo asko kostatzen zaigu ikatea, eta honelako aplikazio batek asko lagunduko ligukete. Egia da, jada badaudela azalpenak ematen dituzten bideoak, baina euskaraz ia ez dago materialik, horregatik denengana iristea gustatuko litzaiguke.

